

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI ODOL EMATEA

Odola emateko zita, bihar

Bihar izango dute ekaineko zita, Hernaniko odol emaileek. Arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara, aukera izango da anbulatorioan, odola eman edo organo donante egiteko. Maiatzean, 42 lagunek eman zuten odola, horietatik lau berriak; eta hiru lagun egin ziren organo donante. ■

■ HERNANI ERABAKI

Gaur bilera, Zikuñagan

Erabaki Hernani prozesuaren lehenengo fasea, proposamenak egiteko, martxan dago jadanik. Auzoz auzo ari dira bilerak egiten eta gaur, 19:30etan, Zikuñagan dago hitzordua jarrita. Asteazkenean, Portun egingo da, 19:00etan. Ostegunean, 19:00etan, Antzolian, eta ostiralean, 19:30etan, Latsunbeberri. ■

■ HERNANI EH BILDU

Batzarra, emaitzak aztertzeke

Apirila eta maiatzeko hauteskundeak, kanpaina eta emaitzak, jorratuko ditu EHBilduk asteazkenean, 19:00etan Andre Kaleko Bilgunean egingo den herri batzarrean. Bi hauteskunde balarazioa egitearekin batera, bertan, datorren legegintzaldiko antolaketaren inguruan ere hitz egingo dute EH Bilduk Udalean izango duen ordezkariak eta herritarrek. ■

■ HERNANI DANTZA

Ostegunean, emanaldia Biterin

Dantza latinoko ikasleen emanaldia antolatu da ostegun honetan, Biterin, 20:00etan. Salsa, merenge, batxata, tango... estiloak dantzatu dituzte ikasleek. ■

■ ASTIGARRAGA PRESOK

Kontzentrazioa

Kontzentrazioa gaur, 20:00etan Joseba Barandiaran plazan. Preso eta iheslariak etxera lelopean izango da. ■

■ HERNANI OSIÑAGA FESTAK

Agur Osiñaga, ongi etorri Mendekosteak

Eguraldia lagun izanda, atzo amaitu ziren Osiñagako festak jende askoren partaidetzarekin eta ostiralean, Floridako Mendekosteak hasiko dira txupinazioa, jolasak eta nagusien danborradarekin.

EKAINAREKIN batera Hernani jaietan murgildu da buru-belarri. Osiñagako festak atzo amaitu ziren giro ezin hobean. Agian bero gehiegi egin du, baina atzo eguzkiaren indarra zerbait baretu zen eta bigarren egunez jarraian jendetza bildu zen Arriatsu inguruan. Goizean pelota partidu ederrak eskaini zituzten gazteek eta Master Cupeko lau pelotarik.

Tolosa ahizpak girotu zuten, bitartean, goiza beraien trikiti doinuekin eta ondoren Aitor Mendiluze eta Agin Laburu bertsolariak aritu ziren bertotan indarrak hartu aurretik bazkari oparo batekin. Arratsaldean, zaldi desaiorearen momentua iritsi zen. Apustua bukatzearekin batera, bigarren saio bat ere eskainiko zuten bertsolariak.

Mendekosteak, San Antonioak eta San Joanak ekainean zehar

Behin Osiñagakoak amaituta



Zaldi apustuak jende ugari bildu zuen Osiñagako jaietan.

Florida Auzoko Mendekosteek hartuko dute erreleboa edo lekukoa ostiraletik aurrera. Txupinazioak emango die hasiera festei, arratsaldez,

umeentzako jolas eta buru-handiekin batera. Eta gauean nagusien danborrada egingo da. Ondoren, larunbatean eta igandean luzatuko dira festak.

Eta geldiunerik gabe ondoren Ereñotzuko San Antonioak eta San Joanak etorriko dira hilabetea amaitzeko. Festa zaleek badute aukera. ■

■ HERNANI GIPIZKOA ARGITU

Energia aurrezteko saio praktikoa, Biterin

Ekainaren 11an, Aldundiak eta Udalak elkarlanean antolatzen dute 'Gipuzkoa Argitu' programaren barruan. Hirugarren tailer hau etxebizitzetan eraginkortasuna altuko birgaitzea lortzeko saio da.

GIPIZKOA Foru Aldundiak, Hernaniko Udalarekin elkarlanean, Gipuzkoa Argitu programaren baitan, etxebizitzetan birgaitze energetikoa sustatzera eta, bide batez, herritarren bizi-kalitatea hobetzera zuzendutako doako tailerra antolatu du ekainaren 11an, 18:00etan, Biteri Kultur

Etxean.

Eraginkortasun altuko birgaitzea: zure etxerako baliagarria, dirua aurrezteko eta osasuna irabazteko izeneko tailerraren helburua bizitegirako diren eraikinen birgaitzea aurrera eramateko orduan herritarrei energia-eraginkortasunarekin zerikusia du-

ten irizpideak eta ezagutzak eskura jartzea da, beti ere, modu erraz eta ulergarrian.

Ostirala baino lehen izena eman behar da

Saioak praktikoa dira eta tailer hauetan parte hartu nahi duten herritarrek ekainaren 7a, ostirala, baino lehen

izena eman behar dute. Horretarako, honako bideak erabil daitezke: Posta elektronikoa bidaltzea ondorengo helbidera oihane@izadi21.eus; Honako telefono zenbakira deitzea 686 427 565 eta informazio osagarriarortu daiteke ondorengo webgunean: www.gipuzkoaingurumena.eus/eu/argitu. ■


mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI


Allianz
ASEGURUAK
bizitza -
latripuak -
ibilgailuak -
etxeak -
komertzioak -
enpresaak -
ardura zibila -
finantz aseguruak -
inbertsioak -
agustin ezponda irizar
agentzia
Nagusia, 13
Tel.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

GNOMOS

PAPER DENDA
Pelotari, 11 Astigarraga
943 55 38 05

OINDI

taberna
NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

musika eskola
DOINU-ZALE
KARABEL ALDUA, 4 - beheko ezberria
AURREMATRIKULAZIOA
ZABALIK
ekainaren 14ra arte
943 33 12 33 - 637 85 79 62
IMANOL KAMIO
musika eskola




GAUR Egunaren hasieran goi-lainoak ugariak izango dira baina ateri eutsiko dio. Arratsaldearen hasieran ostarateak gailenduko dira giro eguzkitsua eta atsegina geratuko da. **Min.15° / Max.22°**



BIHAR Goizean hobera egingo du eta giro eguzkitsua izango da tarteka. Arratsaldetik aurrera lainoak ugari egingo dira berriro eta euri pixkat egin dezake. **Min.15° / Max.21°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

HERNANI TILOS 7 PASA



Ramos pelota astintzeko prest pasa den asteko finalaurdenean.

Tilos 7 Pasako finalerdiak gaur hasiko dira lau partidekin

Lau txapelketetako finalerdiak jokatu dira hiru egunetan, asteazkenara arte; gaur lau, bihar hiru eta asteazkenean bakarrik jokatu dira.

TILOS 7 Pasa pala txapelketa herrikoia bere azken partiduetara iritsi da. Gaur hasi eta asteazkenean arte finalerdiak jokatu dira. Guztira zortzi finalerdi, lau txapelketa desberdinei dagozkienak.

Lehenengo lau finalerdiak gaur hasiko dira, 18:00etan. Nesken mailako biak jokatu dira, bigarren mailako finalerdiak bat eta txapelketa herrikoieko finalerdiak batek emango die hasiera gaurko partiduei. Bertan, Flores eta Bela, Garmendia eta Elosegiren

kontra ariko dira. Nesken finalerdiak neurketetan: Garazi-Ekhiñe, Bengoetxea-Granadosen aurka eta Juanes-Gutiérrez, Urien-Otaegiren aurka neurtuko dira. Bigarren mailakoan, Irazustabarrena-Loitegik, Alex-Josuren kontra jokatuko dute eguna amaitzeko.

Bihar beste hiru finalerdi eta asteazkenean azkena

Bihar beste hiru finalerdi jokatuko dira. 18:30etan hasiko da jardunaldia eta aurreneko partiduan lehenengo mailako

finalerdiak jokatu da: Zabala-Unda, Gereñu-Daguerreren aurka. Bigarren partiduan Legarreta eta Olazabalek, Iraola eta Karimen kontra jokatuko dute bigarren mailako finalerdiak. Eta eguna amaitzeko herrikoian Bidegain eta Izostegi, Tejedor eta Urdallean kontra ariko dira.

Asteazkenean, partidu bakarra jokatuko da. Ramos eta Zubimendik, Arregi eta Luixa izango dituzte aurre lehenengo mailako bigarren finalerdian, 18:30etan. ||

HERNANI IGERIKETA ATE IREKIAK

Igeriketa taldeak ate irekiko bi jardunaldi antolatu ditu ekainean

Bi saioak, ordubetekoak eta 9 urtetik gorakoentzat, asteazkenean izango dira; bat etzi, 18:00etan hasita, eta bestea ordu berean ekainaren 12an.

HERNANIKO Igeriketa Taldeak ate irekiko bi jardunaldi egingo ditu udal kiroldegiko igerilekuan, etzi ekainaren 5ean eta 12an, biak asteazkena. Saioak ordubetekoak izango dira, 18:00etatik 19:00etara. 9 urtetik aurrerako neska-mutil guztiek aukera izango dute taldeko entrenatzailearekin eta igerilariarekin batera taldea ezagutu eta proba egiteko. Igeriketa taldea guztiz parte hartzailea eta barne-hartzailea da.

Bertan, lehiaketetan parte hartzen duten neska mutilak, parte hartzen ez dutenak, baita arazo fisikoren bat dutenak ere daude barneratuak. Hurbiltzen diranak aukera izango dute igeriketan hobetzeko, igeriketa teknikak ikasteko eta, batez ere, taldean primeran pasako dute.

Beraz, ura eta uretan ibiltzea gustatzen zaien neska mutiko guztiak gonbidatuak daude ate irekietako jardunaldietan parte hartzera.

Iñigo Llopis eta Enaitz Goñi, oso ongi Gipuzkoa Sarian

Iñigo Llopis eta Enaitz Goñi igerilari hernaniarrak oso ongi aritu dira asteburuan Gipuzkoa Sarian, Donostian. Llopisek Espainiako errekorra egin du 50 bizkarren S8 mailan eta Enaitz Goñik infantilen Espainiako Txapelketarako beste minima bat lortu du 200 bizkar frogan. Kontuan hartu behar da ekaina hasiera ez dela datarik onena izaten markak egiteko. ||

HERNANI KIROL SARIAK

Bihar amaitzen da bozkatzeko epea

Hernaniko kirol elkarteek proposatutako bost kirolari hautagaiak, bozkatzeko epea bihar, ekainaren 4an, bukatuko da, eguerdiko 12:00etan. 16 urtetik gorakoek bozkatu dezakete, hiru bide hauetatik: kirola.hernani.eus web orrian, kiroldegian, edota Biterin. Hautagaiak dira emakumezkoen, Alazne Egiazabal arraunlaria eta Maider Altuna belar hockey jokalaria. Uletan Aitor Urkia atleta eta Aitor Gorrotxategi pelotaria. Eta kirol ibilbidaren saria jasotzeko hautagai bakarra Jose Manuel Otxotorena futbol atezaina da. ||

ASTIGARRAGA JAIK

Santio jaiak antolatzen dira, gaur

Pasa den ostegunean bezala, gaur, astelehenarekin ere, bilera deitu du Santio Jaietako Batzordeak. Udaltzeko pleno aretoan egingo da bilera, arratsaldeko 19:00etan hasita. ||

ASTIGARRAGA BARATZA

Errekondorekin, zalantzak argitzeko zita

Landare, zuhaitz zein zuhaixken inguruko edozein zalantza edota galdera argitzeko prest izango da bihar, ekainaren 4an, Jakoba Errekondo. Agronomo eta paisajista da, eta 18:30etatik aurrera herri baratzetan, hilerri ondoan egongo da. Horrez gain, Landareak Lantzen 2019 agenda ere aurkeztuko du bertan. ||

HERNANI UDALA

Ohiz kanpoko osoko bilkura, bihar

Plenorako ohiz kanpoko bilera deialdia dago bihar, 19:00etan, udaltzeko Pleno aretoan. ||

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Bi Bildu desberdin?

Alderdi politiko desberdinen proposamenen artean, hauteskunde kanpaina, deigarria egin zitzaigun Bilduren bat, maiatzaren 22an argitaratua ondoko titular honekin: 'Bizilagunen bizitza eta turismoaren artean oreka berreskuratzea'. Aurrerago Bilduk turismoaren masifikazioaz hitzegiten du, lan postuen prekarietateari buruz...

Honela, gure Bilduko agintariak Hernanin beste alde batera begiratu badute azken 12 urteetan, eta ez dute konpondu asteburuarekin arazoa

Txotx garaian, ez da ez dutelako ezagutzen, beraz ulertu behar dugu beste interes batzuk hobesten dituztela eta ez dutela konpondu nahi?

Maiatzaren 23an, Reyes Carrerek, Donostiako alkate-tzarako Bilduren alkategaiak honakoa dio hitzez hitz: 'Turistifikazioa bizilagunen eskubideen gainetik pasatzen da arrabola bezala'. Donostian bai eta Hernanin ez?

Azaldu iezadazu. Edo bi Bildu desberdin daude bat Donostian eta beste Hernanin?

Ion Azpiazu Goñi
Kaxkohobetu

IRAGARKI MERKEAK

Emakumea, 37 urtekoa, interna moduan eskaintzen da Hernani edo ingururako. Erreferentziarik. **Deitu: 615 759 884 - 631 208604**

Zerbitzaria eta sukaldaria behar dira Hernaniko taberna batean. C.V.a eta argazkia **Bidali: bzhernani@gmail.com**

Lokala alokairuan, 1go pisuan. 17m karratukoa, eta komunarekin. Ofizina baterako egokia. **Deitu: 943 27 78 51**

LANDANET enpresak KOMERTZIALAK behar ditu. Baldintza ezin hobek: lan-kontratua, soldata finkoa, komisio altuak hilerro eta formazioa enpresaren kontu. **Bidali cv info@landanet.net edo deitu 943 31 86 06**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiojogia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**